

OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:

- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.
- Osasun etxeetan izugarrizko profesional gabezia dago. Eta ondorioz, profesional batek, gainerako enpresak bete behar izaten ditu edo egunerokotasunean 45 kontsulta izaten ditu. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.
- Hainbat eta hainbat osasun etxeetan bizitza osoan izandako zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.
- Kontsulta presentzialak lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.
- Adinekoen eta kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak daude.
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.
- Tolosaldearen kasuan, Asunción klinikak ematen duen zerbitzua gero eta eskasagoa da.

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta guzti honen ondorioak herritarrek (pazienteek) jasaten dituzte, are gehiago gure eskualdean.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da.

Herri txikietan medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarrizko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok kalitatezko osasun arretapublikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Amasa-Villabonaren kasuan, uda honetan Villabonako Osasun Etxean dagoen egoera ez da egokiena. Hainbat lanpostu, dagokion langileekin hornitu gabe daude eta ondorioz langile faltarekin aurkitzen dira. Zalantzarik gabe, egoera honen ondorioz, Aiztondoko eta Amasa-Villabonako herritarrek jasotzen duten osasun arreta ez da izan behar lukeena.

Hori dela eta, Amasa-Villabonako udaleko udalbatzak:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoian barne, osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenetsunez mediku egoiliarren kontratazio-eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arreta eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesionalen kopurua handitu dezala. Diziiplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak eta fisioterapeutak.

*Udalbatzak gehiengo osoz onartuko balu, mozio hau Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera eta Gotzone Sagardui osasun sailburuari bidaliko zaio.

Amasa-Villabonan 2022ko uztailaren 12an